

GEROA NIRNIR

Laster yoaku aldia,
t'egiña deiez atzetik...
Ni bide-ertz naukazu sarri,
zu ezin kenduz begitik.
Zuk egiñiko antz-illuna
ibilli zabiltzalarik,
—joan egunen izpi gozo—
neugaz daroat argirik.

Atzo mindu zindudazan,
kezkatu neutzun biotza:
izate barne ixuri nik
ezpaiaren ur garratza.
Zer egin, zer asmatu neike
atzera be lengo poza;
barriz lortzeko, bai, guriki
estaldu nindun geriza?

Esku maitekor iduri,
or, zeure aurrean, zalu,
ipiñi zendun naimena
ta zuzia zendun piztu.
Dana eban, ezkutu aundiz,
zure irri-parrak azaldu,
betidanik ba'zenkian lez
txera gozoz nun ikutu.

Zuk mintzo, ta nik aditu;
indar berezi bat zeunkan,
samurki jaso-azorik
neure griñen gaiñetikan.
Begi laztan orrein atzetik
zertxobait dei ta dei neukan;
zure gogo garbian eder,
geroa ñirñir nekusan.

LUR-ERTZEAN

Lur-ertzean dot dana itxi
ta zidor gaitzoz noa urrun;
dana nai jzan dot astiñazi,
baiña gaitzak darrait zurrün.

Gaitz doillorraren mendean
une txar batez dot oro
atzean errerik laga,
ta bide itsuz nabil zoro.

Zuri, ama!, agur egin
dautzut, argia astean...
Nork, geroztik, lagunduko
al daust naigabe latzean?

Itxas gaitzoz nabilkizu
biotza zauri-malkotan,
irritsez asetu nairik
egun-sentiko aizetan.

Soiña irri baten ikaraz,
lora-min ene gogoa...
Ama, eidazu zuk, otoi,
onaren altzo beroa.

Olde ta indar, begoz nigan
gaitzaren zidorra itxirik,
on-deiari itsatsiz, argi
bidez nabilken gaurdanik.

Ama, ene odol-tanto,
biotz erituen poza!,
barnean dodan samiña
eidazu zuk, arren, goza!